



Andoaino Udala

PRENTSA OHARRA

Interesa duten talde guztiei jakinarazten zaie, **Sanjuanetan, ekainaren 15etik 25era bitartean, txosnak jartzeko eskaera-epea irekita dagoela maiatzaren 27 arte, hau barne.** Araudiaren arabera, baimenduko diren txosna kopurua 3koa izango da.

Eskaerak Andoainen egoitza duten talde edo erakundeek egin dezakete, beti ere irabazi asmorik gabeko taldeak izan behar dute. Eskaerak Bastero Kulturgunean aurkeztuko dira aipaturiko epean, goizeko 10:30etatik 13:30etara eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara edo Udaletxeko Atarian goizeko 08:00etatik 14:00etara.

Andoainen, 2019ko maiatzaren 15ean.